

Udal agintariak Hannoverren egindako deialdia, XXI. Mendeko atarian

A. Sarrera

Gu, Europako eta ondoko eskualdeetako 36 herriko udal agintariok, Hannover 2000 Konferentzian bildu gara (Hiri eta Udal Jasangarriak buruzko Europako Hirugarren Konferentzia), 2000ko otsailaren 9tik 12ra, gure hirien nahiz udalerrien jasangarritasunaren bidean emandako aurrerapausoak ebaluatzeko eta akordio bat lortzeko, gure ahaleginek XXI. mendeko atarian hartu behar duten norabideari buruz.

Jasangarritasunerantz doazen Europako Hirien eta Udalerrien Gutuna (Aalborg-eko Gutuna) sinatuta, gure toki agintariak konpromisoa hartu dute XXI. Toki Agendarekin edo garapen jasangarria planifikatzeko beste prozesu batzuekin; gainera, Hiri eta Udalerri Jasangarrien Europako Kanpainarekin bat egin dute; kanpaina hori, orain arte, honako hauek koordinatu dute: Europako Udalerrien eta Eskualdeen Batzordea (EUEB), Eurocities, Osasunaren Mundu Erakundeko Hiri Osasungarrien Sarea, Tokiko Ingurumen Ekimenetarako Nazioarteko Batzordea (TIENB) eta Hiri Batuen Erakundea (HBE), Europako Batzordearekiko eta horrek Hiriko Ingurumenari buruz duen Aritu Taldearekiko Lankidetzan.

Europa osoko 32 herriko eskualde nahiz toki mailako 650 agintariak konpromisoa hartu dute tokiko jasangarritasunaren bidean eta Kanpainan, Aalborg-eko gutuna sinatuta. Kanpainako partaide guztien biztanleriak Europa osoko 130 milioi biztanle adierazten ditu.

Lisboako Ekintza Plana hartu dugu orientaziotzat, eta Turku, Sofia, Sevilla eta Hagako Adierazpenek jarduteko beharizana adierazten dute. Kanpaina abiatu zenetik egindako aurrerakuntza nabaria izan da eta horrek aldaketa positiboak eragin ditu gure herrietan eta udalerrietan. Gure Lorpenek jarduketarako adorea ematen dute, oraindik ere planteatzen zaizkigun erronka ugariak jakiteko.

B. Udalerrietan jasangarritasunerantz egindako jarduketarako Printzipioak eta Balioak

B.1 Batuta gaude oraingo eta geroko belaunaldien ongizatea lortzeko ardurak. Horrenbestez, justizia eta gizarte berdintasun handiagoa lortzeko lanean jarri gara, baita pobrezia eta gizarte bazterkeriaren aurkako borrokan ere, eta ingurumen osasuntsua eta bizigarria lortzearen aldeko ahaleginean ere bai. Errespetatu egiten ditugu, kultura, sexu, erlijio, arraza eta adinaren arabera desberdintasunak, horiek lagungarriak baitira gure hirietako gizarte ongizatea lortzeko.

B.2 Gure ustez, ekonomia (errekurtsioak gizakien eta izatearen beharizanak betetzeko ondasun eta zerbitzu bihurtzen dituen giza-jardueren multzoa) eraginkorra izan behar da gizartearen eta ekologiaren aldetik, eta berriztagarriak ez diren baliabideen alferreko kontsumoa saihestu behar da.

B.3 Denon erantzukizuna onartzen dugu, garapen jasangarria lortzeko. Hiritarren partehartzea lortu nahi dugu eta Gobernu maila guztiekiko eta udalerrietan inplikaturik

dauden pertsona guztiekiko lankidetzaz lortzeko ahaleaginean ari gara, GKEak ere kontuan hartuta, gure ikuspegi orokorra modu integratuan adierazteko.

B.4 Gure ustez, bakean dagoen mundua ezinbesteko eta aurretiazko baldintza da, gizarte jasangarria lortzeko.

C. Hiriaren Buruzagitza

C.1 Guk, udal agintariok, udaletan jardun beharra dugu, daukagun erantzukizun orokorra kontuan hartuta. Etorkizuneko ikuspegia dugun buruzagiak izateko asmoa dugu, eta ausartak izango gara gure ekintzen erronkei eta ardurei aurre egiteko. Izan ere, hori beharrezkoa da gerora egongo den aurrekaririk gabeko aldaketa gidatzeko. Adierazpen honen eranskinean identifikatu ditugun aukerei, oztopoei eta erronkei dagokienez, honako konpromiso hauek hartu ditugu.

C.2 Europako integrazioa bultzatzen dugu, gizarte eta ekonomi konexioa lortzeko, gizarte nahiz ingurumen mailako estandarrak mantenduz. Hori aurretiazko baldintza da, elkarte jasangarriak eta gizarte baketsua lortzeko. Horrenbestez, ongietorria ematen diegu Europar Batasunaren handitzeari eta Europaren eta Mediterranioko herrien arteko politikari.

C.3 Erronka handiak ditugu aurrean: pobrezia nahiz langabezia, etxebizitzaren zein lanaren baldintza ezegokiak; airearen kutsadura, zaratak eta itotzeak; luraren nahiz habitaten narriadura eta uraren baliabideak agortzea. Europa Erdialdeko eta Ekialdeko hirien erronka bikoitza onartzen dugu, horiek iraganetik iritsitako arazo itzelak ere gainditu behar baitituzte. Erakargarriak baina jasanezinak diren ereduak itsu-itsuan hartzea saihestu behar dugu. Trantsizio fasean baliabideak eta boterea eskuratzeko aukeretan egondako desorekak areagotu egin ditu gizartearen arteko desberdintasunak.

C.4 Aldi berean, Hegoaldean ditugun homologoekiko erantzukizuna sentitzen dugu. Garapen bideko, eta, batez ere, Mediterraneoan dagoen eskualdeko hiriekiko lankidetzaz deszentralizatua indartu nahi dugu.

C.5 Gure elkarteko "aztarna ekologikoa" murrizten duten udalerrri mailako politikak lortu nahi ditugu. Ez dugu nahi gure bizi ereduak beste eskualde batzuetako gizakien eta naturaren ustiapenean oinarritzea. Tokiko Gobernuak egindako jarduketak guztiak baloratuko ditugu, baldin eta jarduketok kalterik ez egiteko dugun helburuaren eta erantzukizunak datozen belaunaldi ez leporatzearen aldekoak badira.

C.6 Honako honekin identifikatzen gara: hiriko planifikazio integratua; hiri trinkoaren garapena; narriaturiko hiri nahiz industri eremuen suspertzea; lurren eta beste baliabide natural batzuen erabilera mugatuagoa eta eraginkorragoa; garraioaren zein energiaren toki kudeaketa; eta gizarte bazterkeriaren, langabeziaren nahiz pobreziaaren aurkako borroka, toki mailako jasangarritasunak lortzeko burutu nahi dugun hiri-kudeaketaren oinarritzko puntuak baitira.

C.7 Teknologia berriek eta zerbitzuak berritzeko kontzeptuek eskainitako aukera guztiak aprobetxatuko ditugu, gure hirien eraginkortasun ekologikoa handitzeko. Merkatuan dugun eskuratzeko ahalmenaz jabetu eta ahalmen hori erabiliko dugu, garapena soluzio trinkoetarantz bideratzeko, gizarte eta ingurumen ikuspegia kontuan hartuta.

C.8 Tokiko jasangarritasunerako adierazleak sartzeko konpromisoa hartu dugu, eta horien arabera helburuak finkatu, aurrerakuntza zaindu eta lorturiko emaitzei buruzko

informazioa emango dugu. Denon artean erabakitako Europako Adierazle Komunen multzoa tresna egokia izan daiteke, Europa osoan jasangarritasunerako biderantz egindako aldaketak konparatzeko.

C.9 Eskualde mailako sareak ezarri eta garatuko ditugu, garapen jasangarria sustatzeko.

C.10 Egoera berezian dauden hiriei eta udalerriei laguntza emateko ahalegina egingo dugu (adibidez, hondamendi naturalek eta gerrek jota daudenak).

C.11 Gu, udal agintariok, prest gaude garapen jasangarriaren erronkei aurre egiteko; gure ustez, hiriak edo udalerriak erakunde egokiak dira arazoei modu integratuan aurre egiteko. Horrenbestez, herri askotan, tokiko gobernuak indartu egin behar dira, eta horiei erantzukizuna eta beharrezko ahalmena eman behar zaie, baita diru-sarrera egokiak ere. Tokiko Gobernuak, beste alde batetik, gobernu eskema berriak hartu, modu demokratikoz, partaidetzaz nahiz gardentasunez lan egin eta era guztietako ustelkerien aurka borroka egin beharko dute.

D. Gure deialdia

D.1 Guk, Europako eta ondoko eskualdeetako udal agintariok, Hannoverren bilduta, nazioarteko elkarteari eskabide hauxe egin nahi diogu:

- 21. Agenda (Río de Janeiron 1992an egindako Lurrari buruzko Gailurreko oinarritzko agiria) eta Habitat Agenda (Nazio Batuek Giza Ezarkuntzei buruz egindako Bigarren Konferentziaren oinarritzko agiria, Istanbullen 1996an egindako konferentzia) ezartzeko laguntza handiagoa ematea, oraindik ere garapen jasangarriarekiko konpromisorik hartu ez duten herrietan.
- Laneko eta ingurumeneko "dumping" deritzona geldiaraztea, gizarte nahiz ingurumen mailako estandarrak sartuta, nazioarteko eta alderdi anitzeko merkataritza erabakietan, eta horrela pobrezia arintzen laguntzea.
- Zorra kentzea barkatze programen bitartez.
- Tokiko autogobernua bultzatzea eta ez ekiditea, eta tokiko ingurumen politiken garapena sustatzea, alderdi askotako erabakien bitartez.
- Beharrezko fondoak ematea nazioarteko finantza erakundeei, garapen jasangarriarako; hain zuzen ere, hiriko garapen jasangarriarako fondo bat ezartzea, "Global Environmental Facility" deritzon programaren barruan

D.2 Guk, Europako eta ondoko eskualdeetako udal agintariok, Hannoverren bilduta, Europako erakundeei eta, batez ere, Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari eskabide hauxe egin nahi diogu:

- Tokiko garapen jasangarriari lehentasun handiagoa ematea, Europako gizarte jasangarriaren oinarritzat, eta Batzordearen egituran hiriko garapen jasangarriari loturiko gaien ondoriozko erantzukizunak esleitzea.

- Lankidetza eremua onartzeari lehentasuna ematea, Hiri eta Udallerri Jasangarrien Europako Kanpaina bultzatzeko; horretarako, Batzordeak proposatutakoa baino finantza egitura eskuzabalagoa ematea eta horren aplikagarritasuna ondoko eskualdeetako herri gehiagotara eratzea.
- Gizarte eta ingurumen mailako irizpideak sartzeari barruko merkatuen politikan legeria garrantzitsuan, programetan eta finantziario sistemetan.
- Tokiko autogobernua bultzatzea eta segurtatzea Europako herrietan, eta dirulaguntza printzipioa errespetatzea Europako Elkartearen jarduketan guztietan.
- Tokiko elkarteekin eta Gobernu sareekin batera, partehartze kultura bat garatzea Europako Batzordearen eta toki agintarien nahiz horien elkarrekin artean, dirulaguntza printzipioa adierazteko.
- Dirulaguntzak ematea (batik bat, Egiturazko Funderoen eremuan) tokiko eta eskualdeko agintariei, garapen jasangarriko plana egin dezaten.
- Europa Erdialdeko eta Ekialdeko herrietan toki agintarien ahaleginei laguntza handiagoa ematea, baita Europar Batasunetik kanpoko Mediterranioko herrietan ere, Europar Batasuneko legeria betetzeko; horretarako, saritu egingo dira ekimenak, sormenak, berrikuntza eta hori betetzeko emandako aurrerapausoak.
- Tokiko, probintziako, eskualdeko eta Estatuko Gobernuetako lankidetzan jardutea, maila guztietako ingurumen jasangarritasunerako kudeaketa bultzatzen duen eremua ezarri.
- Hiri eta Udallerri Jasangarrien Europako Kanpaina laguntzea eta bultzatzea; kanpaina hori tokiko elkarteek eta agintari sareek koordinatzen dute, Europar Batzordearekiko eta horrek Hiriko Ingurumenerako Aditu Taldearekiko lankidetzan.
- Energiari buruzko zerga sartzeari (eta aireko garraiorako dirulaguntzak ezabatzea), energiaren erabileran gizartean nahiz ekologian dituen kostuak berraztertzea eta energiaren erabilera jasangarriko zein eraginkorrerako pizgarriak sortzea.
- Nazioarteak udaletan eta eskualdeetan jasangarritasuna lortzeko eskatzen duen lankidetzaren bultzatzea, baita esperientzia garrantzitsuenen trukea ere.
- Komunikabideetan publizitate kanpaina erakargarria egitea, jasangarritasunari buruz, interes talde egoki guztietako lankidetzan.
- Toki eremuari laguntza ematea, Europar Batasuneko Legeriari egokitzeko eta legeria hori sartzeko ahaleginetan, horrek hirien eta udallerrien garapen jasangarrian eragina duenean.

D.3 Guk, Europako eta ondoko eskualdeetako udal agintariok, Hannoverren bilduta, nazioetako gobernuari eskabide hau egin nahi diegu:

- Eremu politiko egokiak eskaintzea, tokiko garapen jasangarria bultzatzeko eta, batik bat, 21. Agenda nahiz Habitat Agenda ezartzen laguntzeko, oraindik ere garapen jasangarriarekiko konpromisorik hartu ez duten herrietan.
- Garapen jasangarrirako eta Tokiko 21. Agendarako nazio mailako kanpainak bultzatzea.
- Toki eta eskualde mailako agintariei dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, hiriko garapenaren nahiz berrikuntzaren eremuan, baita garraioaren eremuan ere, betiere garapen jasangarriko plana egotekotan.
- Europa osoan energiari buruzko zerga bat erabakitzea, energia berriztagarriak eta energia nahiz beroa modu konbinatuan sortzen duten plantak albo batera utzita.
- Hiriak eta eskualdeak baliozko kideztat onartzea, jasangarritasuna garatzeko nazioarteko proiektuetarako.

D.4 Guk, Europako eta ondoko eskualdeetako agintariok, Hannoverren bilduta, gure eskualdeetako toki mailako beste agintari batzuei eskabide hauxe egin nahi diegu:

- Jasangarritasunerako Europako Hirien eta Udalerrien Gutuna (Aalborgeko Gutuna) sinatzea eta, horrela, Hiri eta Udallerri Jasangarrien Europako Kanpainarekin bat egitea.
- Osasun-ekintzako planen eta garapen jasangarriko planen (Tokiko 21. Agenda) garapenean eta ezarkuntzan konpromisoa hartzea; horiek, besteak beste, Lisboako Ekintzako planak gidatzen ditu.
- “Europako Udal Agintariak Hannoverren XXI. Mendeko Atarian egindako Adierazpena” bultzatzea.
- Baliabide naturalak erabiltzeko eta ingurumen kalitaterako erantzukizuna onartzea, eta tokiko jasangarritasunerako eta ingurumen mailako lorpenerako kudeaketa sistemak sartzeko, esate berako, ingurumen aurrekontuak eta EMAS.
- “Norberaren etxea ondo mantetzea”, produkturen eta zerbitzuen erosketak ekologikorako politikak sartuta.

D.5 Guk, Europako eta ondoko eskualdeetako udal agintariok, Hannoverren bilduta, Tokiko XXI. Agendaren prozesuan interesa duten pertsonei eskabide hauxe egin nahi diegu:

- Hiri eta Udallerri Jasangarrien Europako Kanpaina bultzatzea, baita berori kudeatzen duten elkarteak eta sareak bultzatzea ere.
- Tokiko jasangarritasun jarduerekin eta Kanpainarekin konpromisoa hartzea.
- Hiria, udalerria edo herria Kanpainak sartzeko bultzada ematea, oraindik ere Aalborgeko Gutuna sinatu ez badute.

- Erakundeei (adibidez, ikerketa eta hezkuntza mailakoei) beharrezko ezaguerak eta metodoak eskaintzea, Tokiko XXI. Agendan parte hartzen duten guztientzat.

D.6 Guk, Europako eta ondoko eskualdeetako udal agintariok, Hannoverren bilduta, ekonomi eta finantza sektoreetan erabakiak hartzen dituzten agintariei eta pertsonei eskabide hau egin nahi diegu:

- Akziodun irabaziak eta interesak handitzeko ikuspegiak arrisku larrian egon daitezkeela ulertzea, baldin eta hirien garapen jasangarria eta hiritarrek kontsumitzaitzat duten ongizatea bermaturik ez badaude.
- Tokiko XXI. Agendaren prozesuan partehartze aktiboa izatea eta, horrela, elkarte jasangarriak eraikitzen laguntzea.
- Ingurumenari, osasunari, segurtasunari eta arriskuei loturiko irizpideak sartzea enpresen estrategietan.
- Produktu eta Zerbitzu jasangarrien merkatu gero eta handiagoan parte hartzea, eta halako merkatuetan dihardutenei eskaintzen zaizkien aukeren onurak jasotzea.

ERANSKINA:

GURE IRITZIAK

1. Aukerak

Europako integrazioak, hain zuzen ere, Europar Batasuna Europa Erdialdeko eta Ekialdeko herriein handitzeak eta Europako Mediterranioko politikak aukera handia eskaintzen diete Europako hiriei. Europa handiago batean hiriok izango duten zeregina kontuan hartuta (Europar Batasuneko legeria betez eta kultura anitzeko gizarte bihurtuz), hiriok lehiakorragoak eta leku jasangarriagoak nahiz erakargarriagoak izango dira.

Europako eta nazioko eremuan, ingurumenari loturiko arloak politika guztietan integratzea helburu garrantzitsua da, Europar Batasunak Cardiff-en (1998) eta Helsinki-n (1999) ateratako ondorioetan adierazitakoaren arabera. Aukera hori kontuan hartu beharko da, helburu hori benetan gauzatzeko, toki eremuaren barruan.

Europar Batasunak hiriko garapen jasangarria bultzatzeko duen lankidetzaren eremua sustatzeko egin duen proposamena, beste alde batetik, oinarri bikaina da Batzordeak Hiri eta Udalerrri Jasangarrien Europako Kanpainarako emandako etengabeko laguntzarako; izan ere, hori aurrerantzean ere tokian tokiko elkarteek eta agintari sareek koordinatu beharko dute, Batzordearekin (kideztat) lankidetzan.

Globalizaziorako eta ekimenak tokian-tokian kokatzeko joera duen ekonomia dual batean, hiriek euren eragina maximizatu behar dute tokian tokiko mikroekonomian, hori garapen jasangarriantze bideratzeko. Tokiko ekintzen eragin orokorra sendoago islatu beharko dute.

Inoizkorik ezaguera kantitate handiena, berrikuntzarako gaitasuna eta teknologia berriak hirientzat baliozkoak izan daiteke, hiriok berrikuntza eta soluzio gune bihurtzeko.

Finantza baliabiderik eza, ondorio kaltegarriak izan arren, aukeratzat ikus daiteke, lehentasunak berriro zehazteko eta eraginkortasuna hobetzeko.

2. Oztopoak

Erronkei aurre egiteko aukera berriak aprobetxatu nahi ditugu. Hala eta guztiz ere, badakigu egiturazko baldintza txar ugari (oztopotzat ikusten ditugunak) dagoela. Europako herri batzuetan, tokiko gobernuak ahulak dira eta ez dute botere nahikorik. Erantzukizunak tokiko gobernuen esku daude, baina horiek ez dute behar besteko baliabiderik.

Barruko merkatua ezarri zenean, ez ziren benetako postuak adierazten zituzten prezioak finkatu, eta gizarte nahiz ingurumen mailako gastuak barruan sartu ziren. Dirulaguntza maltzurren ondorioz, oraindik ere pizgarri akastunak daude.

Aurrerakuntza eta arrakasta, gaur egun ere, jasangarritasun irizpideen arabera barik hazkunde ekonomikoari loturiko irizpideen arabera neurtzen dira.

Finantza merkatuak (kapitalaren jarioa eta inbertsioak gobernatzen dituzte) ez daude modu demokratikoan kontrolatuta.

3. Erronkak

Hiritarren nahia udalerrriak oinarrizko baldintzak eta zerbitzuak eskatzea da, esate baterako, ingurumen bizigarria, airearen kalitatea, ur hornidura, hondakinen eta hondakin uren bilketa zein tratamendua, garraio publikoa, etxebizitza, osasun zerbitzua eta hezkuntza.

Guk, Europako eta ondoko eskualdeetako udal agintariok, badakigu ingurumena hobetzeko ahalegin handiak egin diren arren mundu osoko eta Europako ingurumen joerarik gehienek kezka handia sortzen dutela: klima aldaketak, eremu handiak basamortu bihurtzeak eta uraren nahiz biodibertsitatearen baliabideak galtzeak gaur egun eta gerora ere eragin globala izango dute; beste alde batetik, narriadura egoera horren arrazoiak airearen kutsaduran, zaratetan eta trafiko itotzeetan oinarritzen dira, eta horiek, aldi berean, hirietako nahiz udalerrietako biztanleek sortzen dituzte eguneroko bizitzan.

Era berean, gure ustez, joera ekonomikoak erronka handiak dira gure hirietarako: globalizazio ekonomikoak (botere politikoari nagusitzen zaion finantza boterearekin) murriztu egiten du hiritarrek euren bizi baldintzetan eragina izateko duten aukera (tokiko, nazio eta EBko parlamentuen bitartez).

Ekonomian eta teknologian izandako aldaketaren eraginez, gizarte joerek arazo handiak sortzen dituzte. Gizarte gero eta zaharragoa izatea, pobrezia kronikoa eta langabeziaren hazkundera kontrajarri egiten zaizkio kontsumorako joera gero eta handiagoa duen gizarteari. Horren guztiaren eraginez, aberatsen eta pobreen arteko desorekak handitu daitezke, eta halako desoreken prebentzioa

erronka handia izango da jasagarritasunerantz doazen hirientzat eta udalerrientzat.

Teknologi garapenaren abiadura itzelak eta teknologien berrikuntzaren ondorioz sorturiko aldaketa azkarrek goitik behera aldatuko dute hiritarren bizimodua, hirien funtzionamendua eta hiritarrek hiriarekin identifikatzeko duten modua.

Ezin dugu ahaztu Europako bizi-ereduak, neurri batean, pobreak ustiatzetik lortu zela. Eskulan merkearen eta naturaren ustiapena, garapen bidean dauden herrietan, gai garrantzitsua izango da hiri eta udalerrri guztientzat.